

Historia

Opus Deiren historia laburra

2004 Ots 9

1928. Urriak 2: Josemaría Escrivá de Balaguerrek, gogo jardun batzuetan Madrilen, Jainkoaren goi-argiz, Opus Dei fundatu zuen, edozein klasetako pertsonen santutasun bide bezala zuzendua, lanbidearen barruan eta kristauaren eguneroko eginbeharrak betez. "Opus Dei" izena geroxeagokoa da: ez zuen erabili 30eko hamarkadaren hasiera arte, Jaunak eskatzen zionari buruz idatzitako oharretan eta bere

solasaldietan lehenbizikotik
Jaungoikoaren Egintzaz hitz egiten
bazuen ere.

1930. Otsailak 14: Madrilen, Meza
ematen ari dela, Jaungoikoak san
Josemariari adierazten dio Opus Dei
emakumeei ere zuzenduta dagoela.

1933. Opus Deiren lehenengo zentroa
irekitzen da, DYA Akademia, batez
ere ikasleentzat zuzenduta, non
Zuzenbide eta Arkitektura eskolak
ematen diren.

1934. DYA unibertsitari egoitza
bihurtzen da. Handik, fundatzaileak
eta lehenengo kideek kristau heziera
eskaintzen dute eta Opus Deiren
mezua gazteen artean zabaltzen.
Eginkizun horren garrantzizko zati
bat katekesia da, eta behartsu eta
gaixoenganako atentzioa Madrileko
azken auzoetan. Josemaria Escrivak
beti ematen dio bere ekitaldien berri
Madrileko apezpikuari, eta haren

onespena eta bedeinkapena dauka hasieratik.

Consideraciones espirituales,
Camino-ren (Bidea) aurrekaria,
argitaratzen da Cuencan.

1936. Espainiako gerra zibila:
erlijioagatiko jazarpena pizten da eta
Josemaria Escrivak babesa bilatu
behar du leku desberdinetan.
Garaiko gorabeherek geldiaraztea
behartzen dute, momentuz,
fundatzaileak zituen asmoak Opus
Deiren apostolutza lana beste
nazioetara zabaltzeko.

1937. Fundatzaileak eta Opus Deiko
fededun batzuk, Pirinioak Andorran
zehar gurutzatzen dituzte eta
Elizarekiko jazarpenik ez dagoen
aldera pasatzen dira.

1938. Burgosko herritik berriro
hasen da apostolutza lana.

1939. Josemaria Escriva Madrilera itzultzen da. Opus Deiren hedapena Espainiako beste herri batzuetara. Bigarren mundu gerrak beste naziotan hastea galarazten du.

1941. Martxoak 19: Madrilgo apezpikuak, Leopoldo Eijo y Garayek, Opus Deiren lehenengo eliz barrutiko onarpena ematen du.

1943: Otsailak 14: Mezaren barruan, Jaunak zuzenbidezko irtenbide bat ikusarazten dio Josemaria Escrivari, Opus Deiko apaizen ordenazioari bidea irekiko diona: Gurutze Santuaren Apaiz Elkarte.

1944. Ekainak 25: Madrilgo apezpikuak Opus Deiko hiru fededun ordenatzen ditu: Alvaro del Portillo, Jose Maria Hernandez de Garnica eta Jose Luis Muzquiz.

1946. Opus Deiren fundatzailea Erromara aldatzen da bizitzera. Ondorengo urteetan, Erromatik

Europa guztia zeharkatzen du,
apostolutza lanaren ezarpena nazio
desberdinetan prestatzearren.

1947: Otsailak 24: Aulki Santuak
lehenengo onarpen pontifikala
ematen du.

1948: Ekainak 29: Fundatzaileak
Gurutze Santuaren Erromatar
Ikastetxea eraikitzen du. Handik
aurrera, Opus Deiko fededun askok
han jasoko dute heziera espiritual eta
pastoral sakona, Erromako ateneo
pontifikal desberdinetan ikasketak
egiten dituzten bitartean.

1950. Ekainak 16: Pio XII.ak behin
betiko onarpena ematen dio Opus
Deiri. Onarpen honen bidez pertsona
ezkonduak Opus Dein onartuak izan
daitezke eta klero sekularreko
apaizak Gurutze Santuaren Apaiz
Elkartera atxikiak.

1952. Iruñan (Espainia) Estudio
General de Navarra sortzen da, gero

Nafarroako Unibertsitatea izango dena.

1953. Abenduak 12: Santa Mariaren Erromatar Ikastetxea eraikitzen da, mundu guztiko Opus Deiko emakumeei heziera espiritual, teologiko eta apostoliko sakona ematera zuzenduta dagoen zentroa.

1957. Aulki Santuak Opus Deiren esku uzten du Yauyoseko Prelatura, Perun.

1965. Azaroak 21: Paulo VI.ak hasiera ematen dio Elis zentroari, gazteen lanbide heziketaren aldeko ekimen bat, Erromaren kanpoaldean kokatua, Aulki Santuak Opus Deiren esku utzitako parrokia duela.

1969. Opus Deiren Kongresu Orokor berezia Erroman, hura Prelatura pertsonal bihurtzea aztertzeke asmoarekin, Vatikanoko II.

Kontzilioak aurrez ikusitako figura juridiko bat, Opus Dei den errealitate

pastoralari egoki zetorkiola
zirudiena.

1970. Opus Deiren fundatzaileak
Mexikora bidaia egiten du. Bederatzi
egunez Guadalupeko Ama Birjinaren
santutegira otoitz egitera doa. Jende
multzo handiekin bilera batzuk ditu,
bertan kristau katekesi lan bikaina
egiten duelarik.

1972. Escriva de Balaguer
Monsinoreak Espainia eta Portugal
zeharkatzen ditu bi hilabeteko
katekesi bidaia eginez.

1974. Opus Deiren fundatzailearen
katekesi bidaia Hegoamerikako sei
nazioetara: Brasil, Argentina, Txile,
Peru, Ekuador eta Venezuela.

1975. Fundatzailearen katekesi
bidaia Venezuela eta Guatemalara.

Ekainak 26: Josemaria Escriva
Erroman hiltzen da. Garai hartan

60.000 pertsonak osatzen dute Opus Dei gutxi gora behera.

Uztailak 7: Torreciudadeko Ama Birjinaren Santutegia inauguratzen da (Huesca, Espainia).

Irailak 15: Alvaro del Portillo hautatzen dute Opus Deiren fundatzailearen ondorengo izateko.

1982. Azaroak 28: Joan Paulo II.ak Opus Dei prelatutza pertsonal bezala eraikitzen du, bere izaera teologiko eta pastoralari egoki datorkion figura juridikoa, eta Alvaro del Portillo prelatu izendatzen du.

1983. Martxoak 19: Opus Dei prelatutza pertsonalaren Eraikuntza bulda gauzatzen da.

1985. Gurutze Santuaren Erromatar Zentro Akademikoa fundatzen da Erroman, 1998an Gurutze Santuaren Unibertsitate Pontifikal izatera pasako dena.

1991. Urtarrilak 6: Joan Paulo II.ak Mons. del Portillo, Opus Deiren prelatua, apezpiku ordenatzen du.

1992. Maiatzak 17. Josemaria Escrivaren beatifikazioa San Pedroko plazan (Erroma).

1994. Martxoak 23: Mons. Alvaro del Portillo Erroman hiltzen da, Lurralde Santura egindako errromesaldi batetik itzuli eta ordu gutxi ondoren.

Apirilak 20: Javier Echevarria Opus Deiren prelatu izendatzen du Joan Paulo II.ak, Hautapenezko Kongresu Orokorrean egindako hautapena baieztatuz.

1995. Urtarrilak 6: Mons. Echevarria apezpiku ordenatzen du Joan Paulo II.ak.

2002. Urriak 6: Joan Paulo II. Aita Santuak Josemaria Escriva kanonizatzen du San Pedroko plazan (Erroma).

**Opus Deik zenbait nazioetan
hasitako lan egonkorraren data:**
1945 Portugal

1946 Italia eta Britania Handia

1947 Frantzia eta Irlanda

1949 Mexiko eta Estatu Batuak

1950 Txile eta Argentina

1951 Kolonbia eta Venezuela

1952 Alemania

1953 Guatemala eta Peru

1954 Ekuador

1956 Uruguay eta Suitza

1957 Brasil, Austria eta Kanada

1958 Japonia, Kenia eta El Salvador

1959 Costa Rica

1960 Holanda

1962 Paraguay

1963 Australia

1964 Filipinak

1965 Belgika eta Nigeria

1969 Puerto Rico

1978 Bolivia

1980 Kongo, Boli Kosta eta Honduras

1981 Hong-Kong

1982 Singapur eta Trinidad eta
Tobago

1984 Suedia

1985 Taiwan

1987 Finlandia

1988 Kamerun eta Dominikar
Errepublika

1989 Macau, Zeelanda Berria eta Polonia

1990 Hungaria eta Txekiar Errepublikak

1992 Nikaragua

1993 India eta Israel

1994 Lituania

1996 Estonia, Eslovakia, Libano, Panama eta Uganda

1997 Kazakhstan

1998 Hegoafrika

2003 Eslovenia eta Kroazia

2007 Errusia

dev.opusdei.org/eu-es/article/historia/
(2025 Abu 6)